



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

JON GIL BELTZA JAUNAK, JON GIL BELTZA, LICENCIADO EN
ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, DERECHO, SECRETARIO-
ASTEASUKO UDALEKO BITARTEKO INTERVENTOR INTERINO DEL
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, EXCMO. AYUNTAMIENTO DE
ASTEASU,

ZIURTATZEN DU:

CERTIFICA:

Asteasuko Udaleko Alkate andreak
2026ko martxoaren 2an ondorengo
ebazpena luzatu duela:

Que la Sra. Alcaldesa del Excmo.
Ayuntamiento de Asteasu, ha emitido la
siguiente Resolución en fecha 2 de marzo
de 2026:

2026/068 ALKATETZA EBAZPENA

Asteasuko Udalak indarrean du Hizkuntza Politikako Plan Estrategikoa (2025-2034), non berariaz jaso dagoen finantza-entitateekin jardutea. Erabilerarekin lotuta, hau da planaren erronketako bat: «*Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu*». Eta, horren barruan, lan-ildo hau: «*Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten*». Lan-ildo horren ekintzetako bat da finantza-entitateekin elkarlanean aritzea. Horretarako hitzarmena da.

El Ayuntamiento de Asteasu cuenta con el vigente el Plan Estratégico de Política Lingüística (2025-2034), en el que está expresamente recogida la actuación con las entidades financieras. En relación con el uso, uno de los retos del plan es "Desarrollar estrategias específicas para el uso cómodo del euskera en la vida cotidiana". Y dentro de esta línea de trabajo "Empoderar a las personas consumidoras y usuarias de los servicios públicos para que utilicen el euskera". Una de las acciones de esta línea de trabajo es la colaboración con las entidades financieras. Es un convenio para eso.

SINA6de42d90-0aff-4069-9019-55c4a92fdcce

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak urteak daramatza esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera indartzeko neurriak hartzen, eta, besteak beste, finantza-entitateekin elkarlanean. Hitzarmenen eta aldi-aldi ebaluazioen bitartez, lortu da entitateek pausoak ematea beren jardunean. Asteasu Udala Mankomunitateko kidea da, eta parte hartu du elkarlaneko bide horretan. Hori sendotzea du xede hitzarmenak.

Udalak eskumena du euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, bai udal barruko jardunean, bai udalerrian ere. Hala xedatzen du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakunde berrizkoak, 7.2. artikuluan:

«Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena».

Herritarren hizkuntza-eskubideak zein diren xedatzen du 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzekoak, 5. artikuluan, eta erakunde berrizkoari betebeharra ezartzen diela horiek bermatzeko. Horrekin lotuta, 10/1982 Legearen 26. artikulua finkatzen du erakunde berrizkoari neurriak hartu behar dituztela euskara sustatzeko:

«Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartuko dituzte eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko». Bide beretik, kontsumo-harremanetan euskara sustatu beharraz

La Mancomunidad de Municipios Euskaldunes lleva años adoptando medidas para reforzar el uso del euskera en el ámbito socioeconómico y, entre otras, en colaboración con entidades financieras. Mediante convenios y evaluaciones periódicas se ha conseguido que las entidades den pasos en su actuación. El Ayuntamiento de Asteasu forma parte de la Mancomunidad y ha participado en este camino colaborativo. El convenio pretende consolidarlo.

El Ayuntamiento tiene competencia para promover el conocimiento y uso del euskera, tanto en su actividad interna como en el municipio. Así lo dispone el artículo 7.2 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi:

“Se atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial”

El artículo 5 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de Normalización del Uso del Euskera, establece los derechos lingüísticos de los ciudadanos y establece la obligación de las instituciones de garantizarlos. En este sentido, el artículo 26 de la Ley 10/1982 establece que las instituciones deben adoptar medidas para la promoción del euskera:

“Los poderes públicos vascos tomarán las medidas oportunas y los medios necesarios tendentes a fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social”. En el mismo sentido, el artículo 85 de la Ley 4/2023, de 27 de



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

mintzo da 4/2023 Legea, apirilaren 27koa, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena, 85. artikuluan: «*Eskumena duten administrazio publikoek beharrezko neurriak hartuko dituzte kontsumo-harremanetan euskararen erabilera sustatzeko*». Horri jarraikiz, bereziki hiru eremu hauetan ekin behar da: «a) *ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea; b) erabilera-agiriak edo -eskuliburuak edo jarraibideak eskura jartzea; c) kontsumitzaileak eta erabiltzaileak artatzeko baliatzen den hizkuntza*».

Proposatutako hitzarmenak, hain justu, helburu du hiru eremu horietan euskararen erabilera sustatzea.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari jarraikiz, neurriak hartu behar dira euskara sustatzeko. Europako Kontseiluak 1992an onartu zuen Gutuna, eta Espainiako Estatuak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuen. Hau dago hartutako konpromisoen artean, 7.2. artikuluan: «*Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatze, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehenetasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak*». Horrekin lotuta, artikulua berak ohar bat egiten du sustapen-politikei buruz, alegia, euskara sustatzea ez dela hartuko hizkuntza hegemonikoaren diskriminaziotzat: «*Eskualdeetako edo eremu urriko*

abril, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, se refiere a la promoción del euskera en las relaciones de consumo: “*Las administraciones públicas competentes adoptarán las medidas oportunas para impulsar el uso del euskera en el ámbito de las relaciones de consumo*”. De conformidad con el mismo, debe actuarse especialmente en los siguientes tres ámbitos: “a) *la oferta, promoción y publicidad de bienes y servicios, b) la puesta a disposición de documentos o manuales de uso o instrucciones, c) la lengua de atención a las personas consumidoras y usuarias*”.

El objetivo del convenio propuesto es precisamente fomentar el uso del euskera en estos tres ámbitos.

En virtud de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias se deben tomar medidas para fomentar el euskera. La Carta fue aprobada por el Consejo de Europa en 1992 y firmada por el Estado español en 1992 y ratificada en 2001. Entre los compromisos adquiridos, en el artículo 7.2, se encuentra: “2. *Las Partes se comprometen a eliminar, si aún no lo han hecho, toda distinción, exclusión, restricción o preferencia injustificadas con respecto a la utilización de una lengua regional o minoritaria cuyo objetivo sea desalentar o poner en peligro el mantenimiento o el desarrollo de la misma*”. A este respecto, el mismo artículo hace una observación respecto a las políticas de fomento de que la promoción del euskera no se considerará discriminación de la lengua hegemónica: “*La adopción de medidas especiales en favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinadas a promover una*

hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzat, neurrian helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada».

Euskararen erabilera sustatzeko bidean, funtsezko osagaia da elkarlana, hizkuntza- politikaren zeharkakotasuna lortze aldera. Toki-erakundeek badute aukera helburu horrekin lankidetzahitzarmenak sinatzeko, 2/2016 Legearen 7.5. artikulua berariaz jasotzen duenez: «Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin». Hain justu ere, hitzarmen honen helburua da finantza-entitateak pauso aurrerakoiak ematea euskararen erabileran eta sustapenean.

Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak hau xedatzen du bere 48.3 artikuluan: «Hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko du, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak egiten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete».

igualdad entre los hablantes de dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación con los hablantes de las lenguas más extendidas.

La colaboración es un elemento fundamental en la promoción del uso del euskera en aras a la transversalidad de la política lingüística. Las entidades locales pueden suscribir convenios de colaboración con este fin, tal y como recoge expresamente el artículo 7.5 de la Ley 2/2016: «Para el ejercicio de las competencias reconocidas en materia de euskera, las entidades locales podrán establecer convenios y crear y participar en mancomunidades, consorcios, asociaciones u otras entidades supramunicipales, así como adoptar otras formas de actuación conjunta con entidades públicas y privadas. El objeto de este convenio es, precisamente, que la entidad financiera dé pasos progresistas en el uso y promoción del euskera.

La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en su artículo 48.3 dispone lo siguiente: «La suscripción de convenios deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera».



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 6. artikulua hau xedatzen du:

“1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-entitateak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzaillearen izaera badute.

2. Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean”.

Lankidetzeta-hitzarmena garatzeak ez du zuzeneko ondorio ekonomikorik, Asteasuko Udalak ez baitu egingo inolako diru-ekarpenik. Udalak konpromisoa hartuko du hitzarmenaren berri herritarrei eta langileei emateko, eta jada badituen baliabideen bitartez egingo du lan hori.

La Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), en su artículo 6 dispone lo siguiente:

“1. Quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídica pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídica privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.

2. Estarán también excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

El desarrollo del convenio de colaboración no tendrá repercusión económica directa, ya que el Ayuntamiento de Asteasu no realizará aportación económica alguna. El Ayuntamiento se compromete a comunicar el convenio a la ciudadanía y al personal, a través de los medios de que disponga.

Espedientean jasota dago dagokion justifikazio memoria.

Consta en el expediente memoria justificativa.

Asteasuko Udaleko bitarteko idazkariak aldez aurreko txostena eta proposamena eman du.

Previo informe-propuesta del Secretario Interino del Ayuntamiento de Asteasu.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 s) idatz-zatiak ematen dituen ahalmenak erabiliz.

En uso de las atribuciones del artículo 21.1 s) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

EBATZI DUT

THE RESUELTO

LEHENA. Onartzea Asteasuko Udalaren, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eta Kutxabank, S.A. arteko Hitzarmena, finantza arloan euskararen erabilera areagotzekoa, ebazpen honen I. eranskinekoa.

PRIMERO. Aprobar el Convenio entre el Ayuntamiento de Asteasu, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea y Kutxabank, S.A. para incrementar el uso del euskera en el ámbito financiero, del Anexo I de la presente resolución.

BIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea interesdunei.

SEGUNDO. NOTIFICAR la presente resolución a los interesados.

HIRUGARRENA. Ebazpen honen berri Udalbatzarrari ematea, egiten den hurrengo bilera arruntean.

TERCERO. Dar cuenta de la presente resolución al Pleno del Ayuntamiento, en la primera sesión ordinaria que se celebre.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

I ERANSKINA / ANEXO I

HITZARMENA, ASTEASUKO UDALAREN, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ETA KUTXABANKEN ARTEKOA, FINANTZA- ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKOA

Asteasun, azken sinadura elektronikoaren datan

ELKARTURIK

Lehenik, Larraitz Alkorta Aizpurua, Asteasuko Udako alkatea, Asteasuko Udaleko idazkari Jon Gil Beltzak lagunduta.

Bigarrenik, Martin Aramendi Arana, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria.

Eta hirugarrenik, Aitor Aranburu Olabarri, Kutxabankeko Txikizkako Bankaren Zuzendari Nagusia.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Asteasuko Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan ezarritako eskumenekin.

Bigarrenak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritzan (aurrerantzean, UEMA), bat etorrita Mankomunitatearen estatutuek ezarritako eskumenekin.

Hirugarrenak, Kutxabanken ordezkari gisa, egintza hau egiteko behar adina ahalorde dituela, notaritzako agiri bidez egiaztatuta.

Hiru aldeek elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun nahikoa, eta horretarako, honako hau

AZALTZEN DUTE

- I. Kutxabanke eta UEMAK lankidetzaren hitzarmena berritu dutela 2025eko azaroan, finantza-arloan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin.
- II. Asteasuko Udala, UEMAKo gainerako udalekin elkar hartuta, ahaleginetan ari dela euskararen erabilera normalizatzeko, indarrean den legeriak zehaztutako tresnak erabiliz. Udalaren xedea da eguneroko bizitzako eremu guztietan eragitea euskararen erabilera areagotzeko, baita arlo sozioekonomikoan ere. Finantza-entitateak ardatza dira horretan, herritarrekin harremana dutelako eta haien bulegoak herritarren topaleku baitira.

SINA6de42d90-0aff-4069-9019-55c4a92fdccce

III. Kutzabanketik helburu duela bezeroei kalitatezko zerbitzua ematea, eta, horretarako, funtsezkoa dela bezeroaren hizkuntza-hautua bermatzea. Euskararen eta gaztelaniaren arteko desoreka gainditzeko, lagungarri da ahulen dagoen hizkuntza, euskara, lehenestea. Finantza-entitatea ikuspegi horrekin ari da euskararen presentzia areagotzen, indartzen eta sendotzen. Kutzabanketik goraipatu egin nahi du bere langileek agerturiko konpromisoa eta borondatea.

IV. Erakundeek ardura dute euskara sustatzeko. Helburu horretarako, lagungarri da lankidetzahitzarmenak egitea, eta horren babesean sinatu da honako hitzarmen hau, finantza-entitateetan euskararen erabilera areagotzeko helburua daukana.

Eta ados daudenez, hitzarmen hau formalizatzen dute hiru aldeek, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea.

Hitzarmen honen helburua da lankidetz-esparru bat ezartzea Asteasuko Udalaren, UEMAren eta Kutzabanketik artean, finantza-arloan euskararen erabilera sustatzeko.

Bigarrena. Elkarren arteko harremanak.

Udalaren eta finantza-entitatearen arteko harremanak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz izango dira. Hori bermatzeko baliabideak jarriko dituzte bi aldeek; finantza-entitateen kasuan, udalerrietako bulegoetan ez ezik, baita gainerako ataletan ere.

Hirugarrena. Hizkuntza-irizpideak.

Finantza-entitateak, hitzarmena sinatu duen udalerrian dauzkan bulegoetan, euskararen presentzia bermatuko du herritarrekiko harremanetan. Helburu hori betetzeko asmoz, besteak beste, honako neurri zehatz hauek ezarriko ditu:

- a) Lehen hitza. Langileek euskaraz egingo diote lehen hitza bezeroari.
- b) Mezu elektronikoak. Posta elektronikoko bidezko mezuak euskaraz bidaliko zaizkie bezeroei, edo ele bietan; ele bietan bidaltzekotan, euskara lehenetsiko da.
- c) Produktuak. Finantza-produktuei buruzko informazioa euskaraz emango dute langileek, non eta bezeroak ez duen aurkakoa eskatzen; idatzizko informazioari dagokionez, euskaraz emango dute, edo, bezeroak hala eskatzen badu, ele bietan. Helburu hori lortzeko begira, entitateak bereziki zainduko du langileek badutela nahiko trebetasun produktuei buruzko informazio teknikoa euskaraz emateko.
- d) Txartelak. Euskaraz konfiguratuko dira txartelak, bezeroak aurkakoa eskatu ezik.
- e) Eskaintza aktiboa. Finantza-entitateak ahalegina egingo du bezeroek gero eta gehiago erabil dezaten euskara bere zerbitzuetan. Horretarako, batetik, kartelak jarriko ditu bulegoetan, langileek badakitela adierazteko eta euskaraz aritzera gonbidatzeko; bestetik, erabilera sustatzeko kanpainak egingo ditu aldiari-aldian.



ASTEASUKO UDALA (GIPIZKOA)

- f) Kutxa automatikoak. Txartela sartu aurreko mezuak euskaraz agertuko dira kutxa automatikoetan: bai publizitatea, bai *sartu txartela* eta horrelako mezuak.
- g) Hizkuntza-paisaia. Euskaraz egongo dira bulegoetan jarritako iragarki kartelen %75 gutxienez, barrura zein kanpora begira. Kartel elebidunak jartzekotan, euskarazko mezua nabarmenduko da. Bulegoak publiziterik jartzen badu tokiko argitalpenetan (aldizkariak, egitarauak...), euskaraz jarriko du. Bulegoko seinaleak euskaraz edo ele bietan jarriko dira; ele bietan bada, euskara lehenetsita. Eskuorrietan euskara lehenetsiko da, eta bulegoetan bezeroek hartzeko moduan dauden eskuorrien %75 gutxienez egongo dira euskarazko aldea ikusgai dutela.
- h) Toponimoak. Leku izenak erabiltzean, euskarazko izen ofizialak baliatuko dira.
- i) Eragiketak. Libretetan eta kontuetan eragiketaren bat erregistratu behar denean, erregistroak euskaraz izango dira, non eta bezeroak ez duen kontrakoa adierazten.
- j) 40 urtez azpiko bezeroei euskara hutsez bidaliko zaizkie komunikazioak, haiek ez badute besterik eskatzen —kasu horretan, ele bietan bidaliko zaizkie komunikazioak, betiere euskara lehenetsita—. Bezero berriak hartzeko prozeduretan txertatuko da irizpide hori, harremana euskaraz has dadin.

Laugarrena. Langileak.

Irizpide horiek guztiak ezartzeko eta euskararen erabilera sustatzeko, osagai funtsezkoa dira finantza-entitateko beharginak. Horiei begira, neurri hauek hartuko dira:

- a) Ezagutza. Bulego horietako langileak gai izango dira edozein lan-mota euskaraz egiteko. Xede hori lortzeko, trebakuntza eskainiko die entitateak, eta baliabide informatikoak prestatuko ditu. Bulego horietan zerbitzu emateko kontratatutako langile berriak, finkoak zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.
- b) Harrera. Langile berri bat hasten denean, harrera egitean azalduko zaizkio hitzarmen honetan jasotako irizpideak. Horrekin batera, udalerrri euskaldunei buruzko oinarritzko informazioa helaraziko zaio, aurrez prestatutako material baten bidez. Hitzarmen hau indarrean sartzean, jadanik bulego horietan lanean ari diren behargin guztiei bidaliko zaie udalerrri euskaldunei buruzko materiala.
- c) Lan-hizkuntza. Langileen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ahalegina egingo du entitateak, lankideen hizkuntza-ohituretan bereziki eraginez. Horretarako, euskararen erabilera sustatzeko antolatzen diren ekimenetan parte hartzea sustatuko du entitateak.

Bosgarrena. Banka elektronikoa.

Euskara lehenesteko neurriak hartuko ditu finantza-entitateak banka elektronikorekin lotutako eremuetan, webgunean zein aplikazioetan. Bermatuko du eragiketa guztiak egin daitezkeela euskaraz. Bezeroek gailu elektronikoak euskaraz konfiguratu dituzten sustatuko du finantza-entitateak, hori bultzatzeko kanpainak egingez, kontuan izanik euskaraz konfiguratzeko inportantea dela zerbitzuak euskaraz erabiltzeko.

Seigarrena. Hedapena.

Udalak hitzarmen honen edukia berri emango die herritarrei. Udal-langileei ere jakinaraziko die, finantza-entitatearekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

Zazpigarrena. Indarraldia.

Hitzarmen honek lau urteko iraunaldia izango du. Nolanahi ere, epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Zortzigarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena egiteko helburuz, Jarraipen Batzordea eratuko dute Kutxabankek eta UEMAK. Funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen dudak argitzea, eta bi aldeentzat interesekoak izan daitezkeen lankidetzabideak proposatzea. Egindako bileren eta balorazioen berri emango diote udalari.

Bederatzigarrena. Hitzarmena aldatzea edo ez betetzea.

Hitzarmen honetako klausulak ez badira betetzen, bertan behera geratuko da hitzarmena.

Aldeetako edozeinek errekerimendu bat egin ahal izango dio beste aldeetako edozeini, urratutzat jotzen dituen betebeharrak edo konpromisoak epe jakin batean bete ditzan. Errekerimendu hori egingo zaio hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoaren arduradunari, eta alde sinatzaileei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die suntsiarazteko arrazoi bat gertatu dela, eta hitzarmena suntsiaraztatzat joko da.

Hamargarrena. Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamaikagarrena. Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabigarrena. Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoen guztirako, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.

Hamahirugarrena. Izaera pertsonaleko datuak.

Aldeek konpromisoa hartu dute akordio honetan jasotako datu pertsonal oro konfidentzialtasunez tratatzeko, bai eta honako hauetan jasotako xedapenak behar bezala eta une oro betetzeko ere:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

Aldeek Akordio honen sinatzaileei buruzko datu pertsonalak tratatuko dituzte, Akordioa mantentzen eta garatzen dela bermatzeko helburu bakarrarekin. Akordio honetan jasotako datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legez behartuta ez badaude. Era berean, interesdunek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, dagokion alderdiaren helbidera joz, bai eta erreklamazioa aurkeztu ere kontrol-agintaritzaren eskudunaren aurrean.

Hamalagarrena. Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua Asteasuko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute hiru aldeek, eta nik, udal-idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

ASTEASUKO UDALA
Larraitz Alkorta Aizpurua

UEMA
Martin Aramendi Arana

KUTXABANK
Aitor Aranburu Olabarri

Nire aurrean,

UDAL-IDAZKARIA
Jon Gil Beltza

SINA6de42d90-0aff-4069-9019-55c4a92fdccce

Eta horrela jasota gera dadin, eta behar Y para que así conste, y surta los efectos
diren ondorioetarako, honako ziurtagiria oportunos, emito el presente certificado,
luzatzen dut, Alkate Andrearen con el visto bueno de la Sra. Alcaldesa,
oniritziarekin, Asteasun. en Asteasu.

O.I. / VºBº

ALKATE ANDREA / LA ALCALDESA



EKS | CSV: SINA6de42d90-0aff-4069-9019-55c4a92fdcce

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Ziurtagiria Hitzarmenak 2025/04

CSV/EKS:

SINA6de42d90-0aff-4069-9019-55c4a92fdcce